

Ni ez naiz espainola



Koldo Aldalur
KAZETARIA
@aldalur_koldo

Egunen batean begietako makarrak kendu aurretik, ezustean, irribarre goxoaren atzean ezkutaturik mikrofono batek erasoko babinindu galdezka ea espainola sentitzen naizen, ezetz erantzungo nioke. Ez naizela sentitzen ez naizena, alegia. Eta erantzuna arrazoitzeko eskatuko balit, intsentsuzko tradizioan, naftalinazko folklorean edo “gu” hutsaletan galdu gabe, esango nioke: “Ezin dut espainola izan kirol munduak erabat desberdintzen gaituelako”.

Ea. Munduko moto GP txapelketak erakutsi berri digu auzokoen logikak nola funtzionatzen duen: azken karrera, Valentzian. Hiru espainiar italiar baten aurka eta txapelketa jokoan. Motorzale bi, Pedrosa eta Marquez, talde berekoak, Hondakoak, eta hirugarrena, Rossi italiarraren taldekoa, Yamahakoa, alegia, Lorenzo.

Neuk irabaztea baino zuk galtzea nahiago, nahiz eta xextra horrek arriskuan jarri gure burua, bi gurgpilen gainean 200 kilometro orduko abiaduran zoazela arriskua biderkatu egiten delako bihurgune bakoitzean. Aurreratzen saiatu, karre-ira irabazi baina txapelketa “aurkariari” emateko? Bai zera, bihar herrian sartzen ez uzteko ere! Baina, lehiakortasuna? Eta zer? Herrikide batek irabazteagatik, hori eta gehiago egin behar da! Eta Marquezen herrian etxeok ez irabazi izana, haren taldekoa ez zen Lorenzok baizik, ozen eta harro ospatu zuten. Kariño kontua omen.

Egun batzuk geroago gurean, beste bi kirolari jarri dira aurrez aurre jokoak ixteko. Josemari Olsagasti eta Aitzol Atutxa. Baldintzak adostu eta pare bat egunera holakoak entzun zitezkeen gure inguruko taberna zokotan: “Zaharrak irabazten badu gazteak batere egiten ez duelako izango da, ez berak asko egin duelako”. “Gazteak irabazten badu kristorena egin balu bezala geratuko da! Erretirotik gertu dagoenari irabazten ez badio bera egungo txapelduna izanda, akabo aizkolaritza”. Eta oraindik gehiago gustatzen zaizkidan perlak: “Orain urte batzuetako Mindegiak edo Arrospeidek harrapatu izan balituzte, hauek lanak bukatzerako, Cantabrico tabernara joan eta libra eta erdiko txuleta ederki zurituko zuketean”. “Noiz egin behar ote dute behar den bezalako jokoak poltsako sosa jokoan dituztela, partiketan ibiltzeke?”. Eta tankera honetakoak, Gasteizko katedralak teilak adina.

Marka da baina, horrek bereizten gaitu. Haiek elkarri lagundu nahirik, kosta ala kosta, eta gu, batere kostatu gabe, elkar izorratzeko prest. Ezin ezer onik opa gertukoari. Tertulia luzeegiak ekonomikaren epeletan.

Horrek, eta Espainiako futbol selekzioa komentatzen duten kazetarien oihu *patriotikoak*.

Gu ere horrelakoak bihurtzekotan alferrik izan da, eta da, oker edo artez, egiten ari garen askatzeko ahalegina. ■

Kutxabang



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Soinu egin du sakelakoak. SMS bat jaso berri du Albertok. WhatsAppa bolo-bolo dabilen garaian, gero eta bakanago bihurtu da SMSak bidaltzea. Jasotzea. Ongi daki hori telefono zahar-arekin baitabil bera oraindik, eta, zorieko aplikazioa ez duenez, egunak (eta asteak) egiten ahal ditu mezurik hartu gabe.

Gaur, ordea, soinu egin du: “Kutxabank publi-zure Gabonetako erosketak Kutxabank maileguekin. Eska ezazu zure bulegoan”. Zur eta lur gelditu da. Are, gur eta mur. Eguberrietan egin “behar” diren erosketak egiteko zerbitzu bikaina eskaini nahi bide du EAEko kutxa nagusiak: (aski) sosik

ez duenari zorretan egoteko bide ziurra eman, nonbait.

Albertoren iritziko, erakundearen izenaren bigarren zatia gailendua zaio lehenari: *kutxa* izatetik zetorren, baina gero eta *bankagoa* dugu. Telefonoan jasotako mezuak ildo –barkatu termino anakronikoa– kapitalista berresten du. Badago makurragorik, hala ere, zeren eta Kataluniako *Centre Delàs* elkarteak egindako ikerketaren arabera, *Kutxabang* armagintzan parte hartzen duten finantza-erakundeetako bat da.

Bere lekuan utzi du Albertok sakelakoa. Bolborra usain ulertezin bat gelditu zaio esku artean. ■